

# ANIZTASUNEAN HEZTEA

Afektibo sexualean eta genero-  
identitatearen aniztasunean



gehitu.org



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
GIPUZKOA



gehitu.org



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
GIPUZKOA



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

**Publikazio data:**

Iraila 2018

**Autoreak:**

GEHITU, MUGEN GAINETIK eta  
IKUSPE ESTUDIO CREATIVO

**Diseinua eta maketazioa:**

IKUSPE ESTUDIO CREATIVO

**ikuspe**

# 04

## Sarrera

- 05 Nori zuzendua da? eta helburuak
- 06 Aplikazio eremua, Iraupena, Behar den materiala, Dinamizatzaillearenzako tip-ak.
- 08 Dinamiken laburpena

# 17

## Estereotipoak

- 17 **7. dinamika:** Baieztapenak
- 18 **8. dinamika:** Zenbat hitz sar daitezke irudi batean

# 10

## Aukezpena

- 10 **1. dinamika:** Dinamizatzaillearen aurkezpena
- 11 **2. dinamika:** Izenen jolasa
- 12 **3. dinamika:** Korapilo handia

# 19

## Sentsibilizazioa

- 19 **9. dinamika:** Psikologoa
- 20 **10. dinamika:** Pertsonaiak
- 22 **11. dinamika:** Kasu bat aztertzea

# 13

## Azalpena

- 13 **4. dinamika:** Ideia-jasa
- 14 **5. dinamika:** Teorizazioa
- 16 **6. dinamika:** Sakontzea

# 23

## Amaiera

- 23 **12. dinamika:** Ebaluazioa (amaierako bideoa)
- 24 **13. dinamika:** Amaiera

## Sarrera

Unitate didaktiko hau Gehitu Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Elkarteak antolatu eta ikastetxetan egindako **aniztasun afektibo-sexualean hezteari buruzko prestakuntza-tailerretan** oinarrituta dago.



Deskargatzeko:

## Dokumentu ERANSKINA eskuragarri Eduki lagungarriak

Aipatutako dinamika batzuk egin ahal izateko lagungarri izango duzun materiala: bideoak, fitxak, txantiloiak...eta dokumentuaren bukaeran, aniztasun afektibo-sexualaren eta genero identitatearen inguruko hitz eta kontzeptuen glosario zabal bat.

<https://www.gehitu.org/wp-content/uploads/2019/09/Eranskina-Aniztasunean-Heztea.pdf>

## Nori zuzendua da?

Hezkuntza ez formalean diharduten dinamizatzaileei; adibidez;

- udalekuak
- aisialdia
- kirol-eskolak
- eskaut taldeak
- guraso-elkarteak

## Helburuak

- Aniztasun afektibo-sexualeko eta genero-identitateko gaiei modu esplizituan erantzutea, erabateko normaltasunez, hainbat dinamika erabilita.
- Pertsonak joera afektibo-sexualeko eta genero-identitateko arrazoiengatik ez diskriminatzeko jarrerak sustatzea, pertsona guztiak onar daitezen benetan diren bezala, eta norbere burua onartzeko eta askatasunez adierazteko bidea erraz diezaiegun.
- Heterosexismoan oinarritutako indarkeria-egoerak prebenitzea hezkuntzaren, beste errealitate batzuen ezagutzaren eta hurbiltasunaren bitartez, aniztasunak dakarren aberastasuna onartuz.
- Gure gizarteak inposatzen duen heteronormatibitatea betetzen ez duten pertsonetikiko estereotipoekin eta aurreiritziekin haustea.
- Diskurtso publiko berdinzaleak eta aniztasun afektibo-sexualarekiko eta genero-identitatearekiko errespetuzkoak sustatzea.



## Aplikazio eremua

- Eskolak
- Familiak
- Tokikoa
- Globala

## Iraupena

**13 lan-dinamika** dira, dinamizatzaile bakoitzari, dituen helburuen eta denbora-mugen arabera, ondoen datorkion moduan aukera daitezkeenak.



Dinamika bakoitzean gutxi gorabeherako iraupena zehazten da, dinamizatzaileak ideia bat izan dezan eta ondo antola dadin.

## Behar den materiala

Aulkiak, arbela, ordenagailua, proiektorea, papera, guraizeak, aldizkariak, boligrafoak eta Interneteko konexioa.

## Dinamizatzailearentzako Tip-Ak

- **Hizkera zuzena eta ulergarria** erabiltzea, taldearen adinari edo profilarri egokitutakoa.
- **Ez inor doktrinat**. Hori bai, egiazko eta kontrastatutako informazioa eman behar dugu.
- **Berotasuna eta gertutasuna**: konfiantza-giroa sortzea, galderak egiteko aske senti daitezen. Erantzuteko prest egotea da garrantzitsua. Nabari dezatela ez dizuela enbarazurik egiten ezain galderak.
- Mespretxuzko, homofobiazko, transfobiazko eta antzerako jarreraren aurrean, lasaitasunez jokatzeko gomendatzen da, iritzi bat besterik ez baillitza, taldearen aurrean agerian utziz iritzi diskriminatzaileak eta mingarriak direla beste pertsona batzuentzako.

- 
- **Elkarrizketa konstruktibo** bat sustatzen saiatzea, eta taldeko kideren bati zuzenean aurre egitea saihestea.
  - Diskurtso inklusiboaren eta onarpenaren aldeko iritziak dituzten taldeko pertsonak bilatzea eta haien parte-hartzea sustatzea, iritzi diskriminatzaileen aurrean ahotsa emanez, beren iritzia galdetuta.
  - Kontuan izan behar da litekeena dela saioan heteronormatibitatearekin bat ez datorren joera afektibo-sexuala edo genero-identitatea duen pertsonaren bat egotea.
  - **Heterosexualitatearen unibertsaltasunaren ustea baztertzea;** hau da, jende guztia heterosexuala den ustea.
  - Entzuteko gaitasuna: hobe da elkarrizketa, bakarriketa baino. Elkarrizketa bat izatea hitz egitea da eta, batez ere, entzutea. Informazioa transmititzen baino gehiago, saia gaitetzen hausnarketari bide ematen.
  - Egon zaitez adi noiz dagoen diskrezio eta konfidentziasun beharra, litekeena baita bere joera afektibo-sexuala edo genero-identitatea aitortzeko zailtasunak dituen pertsonak aurkitzea.
  - Oso ohikoa da erantzunik gabe, zer erantzun jakin gabe, geratzeko beldurra izatea. Kontuan izan behar da ez zaretela dena dakiten espezialistak. Taldeko gainerako kideei galde diezaiekezue ba ote dakiten erantzuna. Nolanahi ere, hobe da esatea ez dakigula erantzuna, baina jakingo dugula hurrengo egunerako.
  - Aurrez esandakoa bateragarria da etengabeko prestakuntzarekin, noski; dinamizatzaile izanik, gainera, behartuta zaude zure burua etengabe trebatzera.
- 

## Dinamiken laburpena:



### Aurkezpena

#### 1. DINAMIZATZAILEAREN AURKEZPENA

Saioa hasiko dugu, geure burua aurkeztu eta enpatia-giroa sortu.

#### 2. IZENEN JOLASA

Sarrera gisa aurkezpena egingo dugu, gainerako partaideen izenak modu dibertigarrian eta naturalean ezagutzeko. Baita dinamizatzaileak taldeari buruzko lehenengo inpresioa izan dezan ere.

#### 3. KORAPILO HANDIA

Gaszte taldeei zuzendutako jolasa da, giro dibertigarria eta desinhibitua sortzeko, talde-kontzientzia ulertzeko eta dinamizatzaileak taldeari buruzko lehenengo inpresioa izatea ahalbidetzeko.



### Azalpena

#### 4. IDEIA-JASA

Ezagutza-maila egiaztatzea eta kontzientzia hartzen hastea.

#### 5. TEORIZAZIOA

Gaiari dagokionez, lexiko zehatza eta egokia barneratzea, eta beraiantzako ezezagunak izan daitezkeen errealitate ezberdinak azaleratzea.

#### 6. SAKONTZEA

Terminoen ezagutza finkatzea ikus-entzunezko materiala proiektatuta, taldeari errealitate ezberdinak erakusteko eta horren inguruan sentsibilizatzeko.





## Estereotipoak

### 7. BAIEZTAPENAK

LGTBI+ kolektiboaren inguruko aurreiritzi eta estereotipoei buruz eztabaidatzea eta argudiatzea.

### 8. ZENBAT HITZ SAR DAITEZKE IRUDI BATEAN

Komunikabideek genero-rolak eta – estereotipoak eraikitzen duten egitekoa azaleratzea.



## Sensibilizazioa

### 9. PSIKOLOGOA

LGTBI+ kolektiboarekin enpatia izatea eta haien bizimoduari buruzko hausnarketa egitea, eta hurbilketa eta sensibilizazioa praktikan jartzea.

### 10. PERTSONAIK

Enpatia sortzea, eta LGTBI+ nerabeek patroli heterosexisten aurrean bizi izaten duten bakardadeari eta presioari buruz hausnartzea.

### 11. KASU BAT AZTERTZEA

Enpatia sustatzea, hausnarketa pertsonala eta taldeko hausnarketa sustatuta.



## Amaiera

### 12. EBALUAZIOA (AMAIERAKO BIDEOA)

Errespetuaren eta batasunaren balioa goraiatzea.

### 13. AMAIERA


Saioari buruzko hausnarketa egitea.

## AURKEZPENA

# 1. DINAMIZATZAILEAREN AURKEZPENA

**Gure burua aurkeztu eta Gehitu, AMPGYL, CHRYSALLIS, EHGAM, Harri Beltza eta LGTBI+ kolektiboaren eskubideak defendatzen lan egiten duten Gipuzkoako beste elkarte batzuk aurkeztuko ditugu.**

**Bide batez, siglak ezagutarazi eta zer esan nahi duten azalduko dugu.**



## AURKEZPENA

# 2. IZENEN JOLASA

**Taldeei zuzendutako sarrerako aurkezpena da, gainerako partaideen izenak modu dibertigarrian eta naturalean ezagutzeko. Baita dinamizatzailerak taldeari buruzko lehenengo inpresioa izan dezan ere.**


### Garapena:

Partaide bakoitzak gustuko duen zerbaitekin zerikusia duen edo sentimenduren bat sortarazten dion hitz bat pentsatzen du, bere izenaren inisial bera duena edo izenarekin errimatzen duena; ondoren, bere izenarekin esaldi bat osatuz aurkeztuko du bere burua taldearen aurrean.

*Adibidez: kaixo, Estitxu naiz eta osasuntsu sentitzen naiz; edo, Alaitz naiz eta beti nabil hitz eta pitz.*

### Hausnarketa: ←

**Gainerako taldekideen izena ikasteko modua erraztea, bata bestearengana bakoitzaren izenaz zuzentzeko eta hurbiltasuna erakusteko.**





GUTXI GORABEHERRAKO IRAUPENA: 20 minutu

AURKEZPENA

## 3. KORAPILO HANDIA

**Gazte taldeei zuzendutako jolasa da, giro dibertigarria eta desinhibitua sortzeko, talde-kontzientzia ulertzeko eta dinamizatzaileak taldeari buruzko lehenengo inpresioa izatea ahalbidetzeko.**

### Garapena:

Partaideak borobilean jarriko dira, elkarri eskua emanda. Inola ere ezin dituzte eskuak askatu, eta elkarren artean korapilatzen iritsi behar dira (mugitu ezin daitekeen multzo bat osatuz), eta hortik hasierako posiziora itzuli. Norbaitek eskua askatzen badu, talde osoak hasi beharko du berriro jolasa. Amaieran, konplizitate-maila balioetsiko dugu.

### Hausnarketa: ←

**Taldeko kide gara, eta ezinbestekoa da hitz egiterakoan eta entzuterakoan errespetuz jokatzea, talde ez apurtzeko eta saioa guretzako aberasgarria izan dadin.**

**Dinamizatzaileak taldearen hasierako diagnostikoa izango du: lasaia, matraka, lotsatia, elkarri laguntzekoa...**



## AZALPENA

# 4. IDEIA-JASA

## Ezagutza-maila egiaztatzea eta kontzientzia hartzen hastea.

### Hausnarketa: ←

Argi al dugu zer den aniztasuna? Zer da sexua? Zer da afektibotasuna? Landu ditugun kontzeptuen inguruan hausnartzen eta, batez ere, kontzeptuok barneratzen lagunduko diguten galderak egingo ditugu.

### Garapena:

Hiru hitz planteatzen dira: ANIZTASUNA – AFEKTIBOA – SEXUALA; eta, askatasun osoz, hitzok zer iradokitzen dieten esan dezaten. Hiru hitzak batera esanda ulertzeko zail samarra izan daitekeenez, hitzez hitz egingo dugu ideia-jasa txiki bat: Zerekin lotzen dute aniztasuna? Eta afektibitatea? Eta sexual hitza?

Arbelan edo papelografo batean idatziko da esaten duten hitz, kontzeptu edo esaldi bakoitza. Esateko besterik ez dutenean edo arbela betetzen denean, hautaketa bat egingo da taldeka / kontzeptu-kategoriara, saioan landuko direnetatik hasita.

Gutxitan gertatzen den zerbait da, baina parte-hartzaileek ez badute ideiarik botatzen edo blokeatuta geratzen badira, ondorengo ikus-entzunezko materialarekin lagunduko diegu:



**ZER DA SEXU-ANIZTASUNA?  
AZALPEN ERRAZA**

**Azalpen-bideoa:** <https://bit.ly/2qWYvpY>

GUTXI GORABEHERRAKO IRAUPENA: 30 minutu



AZALPENA

## 5. TEORIZAZIOA

**Gaiari dagokionez, lexiko zehatza eta egokia barneratzea, eta beraientzako ezezagunak izan daitezkeen errealitate ezberdinak azaleratzea.**

**Hausnarketa** ←

**Dinamika parte-hartzaile honekin, sakonagoa da kontzeptuak ulertzeko gaitasuna, eta beren galderak eta/edo ekarpenak egiten has daitezke. Aldez aurretik zekiten guztia eta gehiago modu teorikoan jasotzeko modua da.**

### Garapena:

Laugarren dinamikan [ideia-jasa] azaldu diren kontzeptuak batzea, “genderbread” eskema eta bideo didaktiko bat erabilita.

Eskema soil hori erakutsiko dugu, pertsonen sexu biologikoa, genero-identitatea, genero-adierazpena eta joera afektibo-sexuala ulertarazten eta sailkatzen laguntzen duena. Esteka honetan, eskema tamaina handian ikusi edo jaitsi eta inprimatu egin dezakezu.

Jarraian, bideo hau erakutsiko diegu parte-hartzaileei, ondorengo terminoak jorratzen dituenak: genero-identitatea, sexu biologikoa, joera afektibo-sexuala eta genero-adierazpena.



**BIDEOAREN esteka**

<https://bit.ly/2LE2b8K>

Bideoa ikusi ondoren, lau bat lagunez osatutako talde txikiak osatuko ditugu.

Talde bakoitzari kategoria bat emango diegu, eta hori zehaztasun handiagoz definitu eta kategoria horren barruan dauden aukerak zehaztu beharko dituzte. Adibidez:

# The Genderbread person v3

**Definizioa:** JOERA da genero jakin batenganako sentitzen duzun erakarpena.

**Aukerak:** homosexuala, bisexuala, heterosexuala, etab.


Eman dioten kategoria eztabaidatu eta barneratu ondoren, talde bakoitzak azalpen bat egingo die gainerako partaideei.

Gehienetan, ondorengo ordena izaten dute aurkezpenek:

1. sexu biologikoa
2. genero-identitatea
3. genero-adierazpena
4. joera afektibo sexuala



**ERANSKINA ikusi - 3. orrialdea**  
Infografía osoa eskuragarri dago



**GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA: 30 minutu**

AZALPENA

## 6. SAKONTZEA

**Terminoen ezagutza finkatzea ikus-entzunezko materiala proiektatuta, taldeari errealitate ezberdinak erakusteko eta horren inguruan sentsibilizatzeke.**

**Hausnarketa:** ←

**Kontziente al gara zenbat errealitate dagoen gure inguruan? Eta hori aberasgarria dela, ziur asko orain arte horrela balioesten ez genuen arren?**



### **Garapena:**

Dinamika honetan, sakonago aztertuko ditugu aurreko dinamiketan sortzen joan diren kategoria teorikoak; horretarako, ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu.

LGTBI+ pertsonen errealitate jakin batzuk jasotzen dira bideo horietan, eta norbanakoari zein taldeari dagokion balioztat jotzen da aniztasuna.

Ez da beharrezkoa bideo guztiak ikustea; saioan lantzeko interesgarrienak izan daitezkeen gaiei buruzko bideoak hautatzen dira.



Bideoak ikusteko

**ERANSKINA ikusi - 4 eta 5 orrialdeak.**



## ESTEREOTIPOAK

# 7. BAIEZTAPENAK

**LGTBI+ kolektiboaren inguruko aurreiritzi eta estereotipoei buruz eztabaidatzea eta argudiatzea.**

**Hausnarketa:** ←

**Aurrez sortutako zenbait patroi ditugu, horren jakitun izan gabe? Zer ekarpen egin dezakegu, errealitate hori alda dadin?**

### Garapena:

Ariketa honetan, taldekide guztiak zutik jarriko dira gelaren erdian. Espazioaren alde batek BAI/EGIA irudikatzen du, eta besteak EZ/GEZURRA.

Dinamizatzailleak baieztapenak botako ditu; pertsona bakoitzak horiei buruzko hausnarketa egingo du, eta aldeetako batean jarriko da. Ondoren, alde bien arteko eztabaidari ekingo diote.

Edozeinek izango du iritiz aldatzeko aukera; kasu horretan, espazioaren beste aldera joango da.

*Baieztapenaren adibidea*

- **Trans pertsona batek ebakuntza bat egin beharko du nahitaez heldua denean.**

*Transexualitatea ez du ebakuntza batek definitzen. Bere buruaren inguruan egiten duen definizioaren arabera da pertsona bat transexuala edo transgeneroa, eta ez egiten dituen ebakuntzen edo hormona-tratamenduen arabera. Hain zuzen ere, trans gehienek ez dute ebakuntzarik egiten.*



Baieztapen guztiak ikusteko  
**ERANSKINA ikusi - 6, 7, 8 eta 9 orrialdeak**



**GUTXI GORABEHERRAKO IRAUPENA: 25 minutu**



**ERANSKINA IKUSI**  
10. orrialdea

## ESTEREOTIPOAK

# 8. ZENBAT HITZ SAR DAITEZKE IRUDI BATEAN

**Genero-rolak eta – estereotipoak eraikitzen komunikabideek duten egitekoa agerian uztea.**

**Hausnarketa:** ←

**Komunikabideek rolen eta generoen estereotipo batzuk erakusten dituzte; guk horiek identifikatu behar ditugu, jakin dezagun nolako eragina duten gure identitatearen eraikuntzan, modan markatzen dizkigun edertasun-kanonetatik harago.**

### Garapena:

Aldizkarietan, gizon eta emakumeekin lotutako irudiak aukeratu eta, arbelean, horman edo atean itsats ditzatela eskatuko diegu partaideei, bi zutabetan banatuta: emakumeak eta gizonak.

Behin irudiak itsatsi ondoren, irudiok gizoni eta emakumeei buruzko zer mezu transmititzen duten aztertuko dugu.

Aldizkarietan normalean agertzen diren irudiek gizon izatearen eta emakume izatearen genero-rol berriak proposatzen dituzte, edo gure aiton-amonen garaitik datozen rol zaharrak errepikatzen dituzte?

Edertasunari dagokionez, zer ideal agertzen dira aukeratutako irudietan?

Eta zer eragin du horrek bizitza errealean?

Aldizkarietan agertzen diren gizon eta emakumeen antzerako pertsona asko ezagutzen al dute?

Bultzatu taldea eskuarki ikusten ditugun irudien ordezkoi aukerak pentsatzera, beren pentsamendu sortzailea eta kritikoa garatuz:

Zer irudi mota proposatuko zeniekete aldizkariaren jabeei, gizon eta emakumeei buruzko ideia berriak sustatzeko erabil ditzaten?

Esteka honetan, gizonaren eta emakumearen gaur egungo estereotipoarekin bat ez datozen irudiak ikusi eta jaitsi ditzakezu, inprimatzeko.



## SENTSIBILIZAZIOA

# 9. PSIKOLOGOA

**Enpatia sortzea, eta LGBTBI+ nerabeek patroï heterosexisten aurrean bizi izaten duten bakardadeari eta presioari buruz hausnartzea.**

### Hausnarketa: ←

Partaideek izan dituzten era horretako sentimenduen eta “normaltasun” kontzeptuaren inguruko hausnarketa egingo dugu.

### Garapena:

Dinamizatzaileak boluntario bat eskatuko du, eta talde osoaren aurrera irten eta dinamizatzailearen aurrean eseriko da. Psikologoaren kontsultara eraman duten nerabe baten papera antzestu beharko du. Deskubritu berri duen heterosexualitateari buruzko galderak egingo dizkio psikologoak, tonu inposatzailean eta errudun sentiaraziz: ziur al zaude heterosexuala zarela?, Nola jakin zenezake, horren gaztea izanik?, Zurea bezalako gorputz bat hobeto ezagutzen baduzu, nola esan zenezake erakartzen zaituena bestelako gorputzak direla? Ez al da izango zure sexu bereko lagunetakoren batekin esperientzia txar bat izan duzulako?

Azken batean, gauzak alderantzikatzea da kontua. Bost minutuko antzezpenaren ondoren, pertsona boluntarioari (eta gainerako taldekideei) izan dituzten sentimenduen gainean galdetuko diegu: jazarpena, eraso, indarkeria, inposaketa... zer sentitu duten.

*Ondorengo bideoa ikusita osa daiteke dinamika hau:*



Bideoaren esteka:

**Alderantziko Mundua: Gayak eta Heteroak (Mundo Al Reves: Gays y Heteros)**

<https://bit.ly/1G4XLPJ>

**GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA: 45 minutu**

## SENTSIBILIZAZIOA

# 10. PERTSONAIK

**LGTBI+ kolektiboarekin enpatia izatea eta haien bizimoduari buruzko hausnarketa egitea, eta hurbilketa eta sentsibilizazioa praktikan jartzea.**

### Hausnarketa: ←

**Eraso LGTBI+fobo baten aurrean izan daitezkeen erreakzioak eta gatazka hori konpontzeko proposamenak bateratu eta argudiatu ondoren, planteatzen zaie ez dagoela horretarako modu zehatz eta perfekturik. Norberak aurkitu behar du ondoen maneatuko duen eta ondoen sentiaraziko duen konponbidea. Eta hainbat erantzun, edo erantzun asko, konbina daitezke; zenbat eta gehiago aplikatu, orduan eta aukera gehiago izango dugu erasoaren aurrean arrakasta izateko.**

### Garapena:

Horretarako, taldeak osatuko ditugu. Talde bakoitzak fikziozko pertsonaia baten ondorengo ezaugarriak definitu –jorratzen ari garen esparruaren adineko pertsonaia batenak–, eta txartel batean idatziko ditu.

- Genero-identitatea: emakumea, gizona, transgeneroa...
- Joera sexuala: homosexuala, bisexuala, heterosexuala, etab.
- Genitalak: alua, zakila, intersexuala...
- Genero-adierazpena: femeninoa, maskulinoa, androginoa...
- Ezaugarri librea.

Orduan, beren pertsonaia imajina dezatela eta beren egunerokotasunean kokatzen saia daitezela eskatuko diegu. Jarraian, pertsonaiak bizi izan dezakeen benetako egoera gatazkatsu bat proposatu beharko dute.

Behin hori guztia idatzi ondoren, pertsonaiak eta egoera elkartrukatuko dituzte, eta talde bakoitzak arazoa konpontzeko irtenbide errealista eta zehatza proposatu beharko du, non taldeko kideak beraiek izango diren protagonistak; hau da, taldekideak gatazka-egoeraren ikusle izango dira, eta zerbait egin behar dute horren aurrean. Zer egingo dute? Zer bururatuko zaie?


Amaieran, proposamen guztiak partekatuko dituzte, eta beren fikzioaren, errealitatearen eta ordeko aukeren gaineko hausnarketa egingo dute.

Era horretan, eraso LGBT+fobo baten aurrean erreakzionatzeko baliabideen garapena lantzen da.

### PROPOSATUTAKO PERTSONAIAK:

Batzuetan, ariketa bera egiten da, baina maila txikiagoan; kasu horietan, dinamizatzaileak txartel batzuk banatzen ditu, pertsonaiaren eta egoeraren proposamenarekin. Era horretan, taldean eztabaidatu behar duten bakarra da zer irtenbide proposatzen dute, eta ondoren taldearen aurrean aurkeztu behar dute.

Kasu horietan, saioan parte hartzen ari diren pertsonen errealitatetik oso hurbileko pertsonaiak eta egoerak proposatzen saiatzen dira dinamizatzaileak, gerta daitezkeen egoerarako baliabide jakin batzuk gara ditzaten, eta ariketa ez dadin izan urrutikoa eta teorikoa den zerbait.



**Eranskinean txartelen txantilo bat ikusi edo jaitsi dezakezu, inprimatzeko. 12 eta 13 orrialdeetan**

**GUTXI GORABEHERRAKO IRAUPENA: 60 minutu**

SENTSIBILIZAZIOA

## 11. KASU BAT AZTERTZEA

### Enpatia sustatzea, hausnarketa pertsonala eta taldeko hausnarketa sustatuta.

#### Hausnarketa: ←

**Mutiko edo neskato bat beste sexuaren jolastzat jotzen diren jolasetan aritzeak ez du batere zerikusirik joera afektibo sexualarekin eta bere genero-identitatearen bizipenarekin.**

**Joera afektibo sexuala ez da ikasten, eta ez da alda daitekeen zerbait. Nahiz eta dinamikoa izan daitekeen, eta aldatzen joan daitekeen gure bizitzan zehar. Giro jakin batean hazteak ez ditu neskak eta mutikoak lesbiana, gay edo bisexual bihurtzen.**

**Neska-mutilak diren bezala eta adierazten diren bezala onartzea eta haien ondoan egotea da laguntzeko modurik onena.**

#### Garapena:

Hiru lan-talde txikitan banatuko dugu taldea, eta guraso batzuek genero-identitatearen eta joera afektibo sexualaren inguruan bizi izan duten egoera bat aurkeztuko zaio talde bakoitzari. Talde bakoitzak kasuaren inguruan eztabaidatuko du, eta guraso horiei emango lieketen aholkuak edo konponbideak adostuko dituzte. Talde bakoitzeko pertsona batek eztabaidatutako guztia idatziz jasoko du eta, azkenean, hiru kasuak eta horietako bakoitzerako emandako konponbideak bateratuko ditugu.

Ondorengo kasuak proposatuko ditugu:

- 1. kasua: Zortzi bat urteko mutiko baten gurasoek esan digute beren semeak panpinekin bakarrik jolastu nahi izaten duela, eta baztertu egiten dituela beste era bateko jostailuak. Kezkatuta eta galduta sentitzen dira.
- 2. kasua: Guraso talde batek esan digu oso kezkatuta daudela, eskaut taldeko beren seme-alaben begiralea gaya dela eta hori argi adierazten duela jakin dutelako.
- 3. kasua: Bikote batek kontaktu digu semeari bizimodua jasangaitz egiten ari zaizkiola ikastetxean, "emakume-taxua" duelako, eta nahiago izaten duela neskekin egotea, mutilekin baino. Kezkatuta daude gaya edo "zerbait okerragoa" ote den.

Ariketa horri esker, bizipenekiko, beldurrekiko... enpatia sentituko dugu; gainera, hausnarketa pertsonalerako eta erantzun bateratu eta adostu baterako bidea ematen digu. Ez litzateke harritzekoa izango, gainera, egoera horietakoren batzuk taldean dauden gurasoek beraiek (edo gertuko jendeak) bizi izandakoak izatea; beraz, interesgarria da une hartan gaiari eman zitzaizkion irtenbideak sakon aztertzea, egoera hobeto nola kudea zitekeen aztertzea...

AMAIERA

## 12. EBALUAZIOA (AMAIERAKO BIDEOA)


Errespetuaren eta batasunaren balioa goraiatzea.



<https://goo.gl/ygro98>

### ALTXA ZAITEZ HOMOFIARIAREN AURKA (LEVANTATE CONTRA LA HOMOFOBIA)

Lau minutuko bideoa da, institutuan ikasten ari den bikote gay baten istorioa kontatzen duena; mutil talde batek bikoteko kideetako bati jasanarazten dion jazarpenari aurre egin behar dio bikoteak. Haien ikaskideak eurak izango dira egoera horretarako irtenbide konstruktibo bat aurkituko dutenak.



<https://bit.ly/1GhFYy>

### LOVE HAS NO LABELS

Bideo laburra da, hiru minutukoa, aniztasunaren aberastasuna azalateratzen duena, balio gisa, betiere elkar ulertzeko borondatea baldin badago, eta maitasunez egiten bada. Era horretan, zuzenean lantzen da familia-, desio- eta laguntasun-aniztasuna, bai eta etiketak eta estereotipoak hautsi beharra ere.



AMAIERA

## 13. AMAIERA

### Saioari buruzko gogoeta egitea.

Azkeneko minutuetan, mahaiak eta aulkiak beren ohiko lekuetan jarri ondoren, dinamikaren balorazioa egingo dugu, paper batean, anonimotasunez, galdera batzuei erantzunda:

- Gustura egon al zara saioetan?
- Uste duzu informazio honek balio izango dizula bizitzan?
- Zer izan da gehien gustatu zaizuna?
- Zer izan da gutxien gustatu zaizuna?
- Tailerlean jarrera egokia izan duzula uste duzu?
- Zergatik?
- Iruzkin librea.

